



**2025EKO MAIATZAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren hogeita bederatzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Unbe Echaniz Perez zinegotzia ez da etorri.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Aitana Amondarain Eskisabel Kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTA.-

Puntu honi dagokion dokumentazioa ez da aurkeztu, beraz 2025eko maiatzaren 8ko akta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da bere onarpenerako.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 2 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPE-DIENTEAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak, 2021eko ekitaldiko Aurrekontutik datozen kreditu-gerakinak Udalaren 2025eko Aurrekontuari txertatu izanaren ondoriozko 2 zk. kreditu-aldaketarako espediente onesteko emandako Alkatezaren Ebazpenaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

LAZKAOKO
UDALA

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak dio (EH Bildu) beraiek Meandroko kontu honetan beste zer-bait ikusten zutela, hormigoi hutsezko bide bat egin eta konpontzea besterik gabe... Iruditzen zaiela dirutza handia doala horretara. Ez dute gogoko gorakako joera hori.

Bestetik aurreikuspen falta ikusten dute, bai proiektu honetan, baita beste gauza batzuetan ere, esaterako kameren ezarpenean... Abstenitu egingo direla dio.

Alkateak azpimarratu du Meandroko gune hori aisialdi gune bat dela, hasiera hasieratik esan duten bezala. Gune horren hasiera litzatekeela hau eta gero etorriko direla beste inbertsio batzuk aisialdi gune hori osatze aldera.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), 6 abstentzioz (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	32.615,71 €
IV	Transferentzia arruntak	25.529,94 €
VI	Inbertsio errealak	123.500,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		181.645,65 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK



Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	181.645,65 €
GUZTIRA		181.645,65 €

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPE-DIENTEAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako transferentzia bidezko 1. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

VI.- PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAREN AURKEZPENA ETA ONARPENA.-

2025eko martxoaren 25eko udal Kontu-hartzailearen txostena ikusita, zeinaren bidez agerian uzten baita 2024ko ekitaldiari dagokion gastu-araua ez dela bete, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lege horren 21. eta 23. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea aplikatuz, zeinak EAEko toki-erakundeen antolamendu- eta eskumen-esparrua ezartzen baitu, eta ikusirik Ekonomia eta Finantza Plan bat (EFP) egiteko betebeharra dagoela, jasagarritasun fiskaleko helburuak berrezarri ahal izateko.

2025-2026 Ekonomia eta Finantza Plana udaleko Kontu-hartzailearen oniritziarekin burutu da, eta Ogasuna, Pertsonala, Kontratazioa eta Kontu Berezien Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu eta onartzea proposatu dio.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio Gobernu talde honek gerakin handia jaso zuela eta beheruntz doala. Plana egin beharra ulertzen dutela eta lan tekniko oso ona dela. Alde politikoa falta zaiola. EAJk berriz ere aukera bikain bat galdu duela adostasun politikoa lortzeko.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun du diruzaintza gerakina aurreikuspenen arabera estimatzen dela jaistea, baina aurrezki garbiak positiboa izaten jarraituko duela. Inbertsioek aurrera jarraitu behar badute, diruzaintza gerakinarekin finantzatzea dela plana. Alternatiba ea inbertsiorik ez egitea den galdetzen du.

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, gaia eztabaidatu ondoren, aldeko 6 botorekin, 6 abstentzioz eta aurkako botorik gabe, honako hau erabaki du:



Lehenengoa.- 2024ko ekitaldian gastu-araua bete ez dela, eta Ekonomia eta Finantza Plana egiteko eta onartzeko legezko betebeharra kontuan hartzea.

Bigarrena.- Lazkaoko Udalaren 2025-2026 Ekonomia eta Finantza Plana onartzea, 2024ko ekitaldian gastu-araua ez betetzeagatik, erabaki honen eranskin gisa erantsi den dokumentuaren arabera.

Hirugarrena.- Aipatutako Ekonomia eta Finantza Plana Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailera bidaltzea, hura baita Lurralde Historikoko toki-erakundeen finantza-tutoretzaren arloko organo eskuduna, aztertu eta baliozkotu dezan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Laugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lazkaoko Udalaren iragar-ki-taula elektronikokan argitaratzea.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri ematea Udaleko Kontu-hartzailetzari, jakinaren gainera egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

VII.- LANKIDETZA-HITZARMENA LAZKAO ETA OLABERRIKO UDALERRIETAKO HIRIGINTZA-ZERBITZUEN ELKARTEA ERATZEKO ETA ARKITEKTO LANPOSTUA AMANKOMUNEAN MANTENTZEKO.-

Lazkaoko eta Olaberriko udalen arteko lankidetza-hitzarmenaren zirriborroa aztertu da. Hitzarmen horren xedea da hirigintza-zerbitzuen elkarte bat eratzea, udal-arkitektoaren lanpostu bat batera mantentzeko, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 42. eta 43. artikuluetan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren babesean.

Lazkaoko eta Olaberriko Hirigintza Zerbitzuen Elkartearen Estatutuen proiektua ere aztertu da. Estatutu horiek elkartearen barne-funtzionamendua, koordinazio-organoak, araubide ekonomikoa eta gainerako antolaketa-alderdiak arautuko dituzte.

Idazkaritza eta Kontuhartzailetzaren txostenak ikusi dira, Osoko Bilkurak hitzarmena onartzeko duen eskumena eta hitzarmenaren egokitasun juridikoa egiaztatzen dituztenak, eta Ogasun Batzordeari hitzarmenaren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkuraren aurretik egindako bilkuran.

Hau guztia ikusirik, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Lazkaoko Udalaren eta Olaberriko Udalaren arteko Lankidetza Hitzarmena onartzea, Hirigintza Zerbitzuen Elkarte bat eratzeko. Horren helburua udal arkitektoaren lanpostua batera mantentzea da, erabaki honen eranskin gisa doan dokumentuan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Lazkaoko eta Olaberriko Hirigintza Zerbitzuen Elkartearen Estatutuak onartzea. Estatutu horiek elkarte horren egitura, eskumenak, funtzionamendu-araubidea eta finantzaketa arautuko dituzte, erabaki honi erantsi zaion testuaren arabera.



Hirugarrena.- Alkateari baimena ematea hitzarmena sinatzeko, bai eta hura garatzeko, gauzatzeko eta administrazio-inskripzioa egiteko behar diren jarduketa guztiak egiteko ere.

Laugarrena.- Bi alderdiek sinatu ondoren, lanpostuak batera mantentzeko hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko toki-araubidearen araudian ezarritakoaren arabera inskribatuko da Udalerrien Elkartearen Erregistroan.

Bosgarrena.- Erabaki hau, hitzarmenarekin eta onartutako estatutuekin batera, Lazkaoko Udalaren egoitza elektronikoan eta webgunean argitaratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Publikoaren Gardentasunari buruzko apirilaren 8ko 1/2016 Legea betetzeko.

VIII.- LAZKAOKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.-

Lazkaoko Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa aztertu da. Hitzarmen horren helburua da bi erakundearen arteko lankidetz-esparru egonkor bat ezartzea, toki-eremuan pertsonen ematen zaien arreta eta haien bizi-kalitatea hobetzeko jarduera soziosanitario bateratuak abian jartzeko.

Lankidetz-esparru horrek, hasiera batean, bi programa espezifiko biltzen ditu:

- 1) Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak eta Udal mailako Gizarte Zerbitzuek artatutako pertsonen artean medikazioaren erabilera hobetzeko programa, farmazia-bulegoen jarraipen pertsonalizatuaren bidez tratamendu farmakologikoen erabilera segurua eta egoia sustatzeko.
- 2) Arazo soziosanitarioak dituzten egoerak detektatzeko programa, farmazietatik gizartezerbitzuek izan ditzaketen kalteberatasun-kasuak edo esku hartzeko beharra identifikatzeko, detekzio goiztiarra eta erakundearen arteko koordinazioa erraztuz.

Gizarte Zerbitzuen Batzordeari hitzarmenaren edukiaren eta helburuaren berri eman zaio.

Honen aurrean, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Lazkaoko Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzahitzarmena, erantsitako dokumentuan jasotako baldintzetan, medikazioaren erabilera hobetzeko eta behar soziosanitarioak dituzten egoerak detektatzeko programak garatzeko.

Bigarrena.- Alkateari baimena ematea hitzarmena sinatzeko, bai eta hura abian jartzeko eta haren jarraipena egiteko behar diren jarduerak egiteko ere.

Hirugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialari eta Gizarte Zerbitzuen udal-arloari helaraztea, programen berri izan dezaten eta koordinatuta jardun dezaten.



Laugarrena.- Hitzarmenari buruzko aipamen bat argitaratzea Lazkaoko Udalaren egoitza elektronikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Publikoaren Gardentasunari buruzko apirilaren 8ko 1/2016 Legean xedatutakoaren arabera.

IX. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du oraindik ez dutela jaso lehendik eskatua duten Gobernu taldearen Kudeaketa Plana. Aktan jasotzea eskatu du.

Alkateak erantzun dio bidaliko zaiela.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



The image shows a handwritten signature in blue ink. Below the signature is an official stamp. The stamp features a blue shield with a white cross and a smaller shield in the center. Below the shield, the text "LAZKAOKO" and "UDAOLA" is printed in blue capital letters. There is another handwritten signature or mark to the right of the stamp.